



RESOLUCIÓN Nº 141/2019 DE LA DIRECTORA GERENTE DE LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA, POR LA QUE SE PROCEDE A APROBAR LA APERTURA DE UNA CONVOCATORIA DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA.

Que con fecha 7 de marzo de 2012 se firmó el Acuerdo de Normativa de Movilidad Horizontal Definitiva de la Red de Salud Mental de Araba.

Que en el citado Acuerdo se establece que las listas tendrán un período de vigencia de dos años.

Que habiendo sido publicadas las anteriores listas en el mes de mayo de 2017 procede efectuar nueva convocatoria de listas de movilidad horizontal definitiva por finalizar la vigencia de las listas anteriores.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO

PRIMERO.- Aprobar la apertura de una convocatoria de listas de Movilidad Horizontal Definitiva en la Red de Salud Mental de Araba, figurando como Anexo de la presente Resolución.

SEGUNDO.- Acordar la publicación de la presente Resolución en los tablones de anuncios y en la página web de la Red de Salud Mental de Araba.

TERCERO.- Contra la presente Resolución, podrá interponerse Recurso de Alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, de conformidad con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2019.



Fdo: Eguzkine de Miguel Aguirre
Directora Gerente

CONVOCATORIA PARA LA ELABORACION DE LISTAS DE MOVILIDAD HORIZONTAL DEFINITIVA EN LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA

NORMATIVA

- Acuerdo de 9 de mayo de 2011, del Consejo de Administración de Osakidetza- Servicio Vasco de Salud, por el que se aprueban los criterios para la provisión de puestos mediante comisión de servicios y mediante promoción interna temporal y los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna definitiva en las organizaciones de servicios en el Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.
- Normativa de Movilidad Horizontal Definitiva aprobada por la Dirección y los Sindicatos SATSE y SAE de fecha 7 de marzo de 2012.

REQUISITOS DE LA CONVOCATORIA

Los aspirantes deberán cumplir obligatoriamente los siguientes requisitos:

1. Ser personal fijo en esta Organización de Servicios.
2. Pertener a la misma categoría profesional que la del destino objeto de la Movilidad Horizontal Definitiva.

BAREMO

(ver también Anexos Resoluciones Concurso de Traslados Osakidetza 2017)

Experiencia profesional: en los términos del último concurso de traslados convocado.

- *Cada mes de servicios prestados en la categoría a la que se opta en las Organizaciones de Servicios Sanitarios de Osakidetza- Servicio Vasco de Salud, de la Seguridad Social o*


SATSE



de los Servicios de Salud de las Comunidades Autónomas o en cualquier Administración Pública, así como aquellos servicios prestados en los Servicios Sanitarios de la red pública de los demás estados miembros de la Unión Europea se valorará según el baremo del último concurso de traslados.

- *Del cómputo total, que se efectuará en base a los días naturales trabajados, se despreciarán los restos que resulten inferiores al mes. A estos efectos se entenderá por mes el conjunto de 30 días naturales.*
- *El período que se tendrá en cuenta para contabilizar la experiencia profesional será hasta la fecha de publicación de la convocatoria de listas.*

Formación, Docencia e Investigación. En los términos del último concurso de traslados convocado.

Nivel de Desarrollo Profesional acreditado:

- Nivel I = 2 puntos
- Nivel II = 4 puntos
- Nivel III = 6 puntos
- Nivel IV = 8 puntos

Euskera.

Cuando no fuera exigible la acreditación del perfil lingüístico se considerará el conocimiento de euskera en los términos establecidos en el último concurso de traslados de carácter general de la categoría correspondiente.

DOCUMENTACION A PRESENTAR JUNTO CON LA SOLICITUD

- Certificado original de servicios prestados, excepto los que ya consten en la aplicación informática SAP- Recursos Humanos, que serán computados de oficio.
- Fotocopia compulsada de certificación de perfil lingüístico. Estarán exentos de aportar la documentación acreditativa del conocimiento de euskera quienes tuvieran ya reconocida la acreditación del correspondiente perfil lingüístico o tengan acreditada la equivalencia del



perfil lingüístico emitido por otra Administración Pública por parte de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

- La información para la baremación de la Formación, Docencia y Difusión del conocimiento se obtendrá del programa Curriculum Vitae computándose exclusivamente los registros validados. Si existiera documentación sin validar, se deberá presentar antes del 21 de mayo de 2019 para su validación por el Servicio de Personal.

PLAZO DE PRESENTACION

Del 02 de mayo de 2019 hasta las 14 horas del día 21 de mayo de 2019.

LUGAR DE PRESENTACION

Servicio de Personal de la Red de Salud Mental de Araba.

FORMA DE PRESENTACION

Las solicitudes se realizarán en los modelos adjuntos en función de la categoría profesional, debiendo el interesado solicitar en el momento de su presentación copia de la misma en la que conste el sello de registro.

En Vitoria-Gasteiz a 17 de abril de 2019.

MEH
SATSE



141/2019 EBAZPENA, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALERAKO ZERRENDAK EGITEKO DEIALDIA ONARTZEKO DENA.

2012ko martxoaren 7an sinatu zen Arabako Osasun Mentaleko Sarean Behin Betiko Mugikortasun Horizontala Arautzeko Akordioa.

Akordio horretan ezarritakoaren arabera, zerrendek bi urteko indarraldia izango dute.

Aurreko zerrendak 2017ko maiatzan argitaratu ziren. Hortaz, aurrekoak indarririk gabe geratu direnez, behin betiko mugikortasun horizontalerako zerrenden deialdi berria egin behar da.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaitan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, zera

EBATZI DUT

LEHENA.- Arabako Osasun Mentaleko Sarean Behin Betiko Mugikortasun Horizontalerako zerrenden deialdia egitea. Deialdi hori, hain zuzen, Ebazpen honen eranskin gisa ageri da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea Arabako Osasun Mentaleko Sareko iragarki-oholetan eta webgunean.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke Osakidetzako zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 23a.



Iz.: Eguzkine de Miguel Aguirre
Zuzendari gerentea



ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALERAKO ZERRENDAK EGITEKO DEIALDIA

ARAUDIA

- Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko erabakia, zeinean onesten baitira, batetik, postuak zerbitzu-eginkizunen bitartez eta aldi baterako barne-sustapen bitartez betetzeko irizpideak, eta, bestetik, Osakidetza ente publikoan postuak erakunde arteko behin betiko barne-mugikortasunaren bitartez betetzeko irizpide orokorrak.
- Behin Betiko Mugikortasun Horizontalari buruzko Araudia. Zuzendaritzak eta SATSE eta SAE sindikatuek onartu zuten 2012ko martxoaren 7an.

DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izangaiek derrigorrez bete beharko dituzte baldintza hauek:

3. Langile finkoak izatea zerbitzu-erakunde honetan.
4. Behin Betiko Mugikortasun Horizontalaren xede den destinoko lanbide-kategoria bera edukitzea.

BAREMOA

(Ikus, halaber, Osakidetza 2017ko Lekualdatze Lehiaketako Ebazpenen Eranskina)

Esperientzia profesionala: deitutako azken lekualdatze-lehiaketako oinarrien arabera.

- Deitutako azken lekualdatze-lehiaketako baremoaren arabera balioztatuko dira, batetik, eskuratu nahi den kategorian jardundako hilabete bakoitza Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan, Gizarte Segurantzza edo autonomia-erkidegoetako edo bestelako herri-

Nela
SATSE



administrazioetako osasun-zerbitzuetan eta, bestetik, Europar Batasuneko kide diren gainerako estatueta osasun-zerbitzu publikoetan eskainitako zerbitzuak.

- *Guztizko denbora zenbatzeko orduan, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan, eta ez dira zenbatuko hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.*
- *Zerrenden deialdia argitaratzen den data arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan esperientzia profesionala aitortzeko.*

Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerkuntza deitutako azken lekualdatze-lehiaketako oinarrien arabera balioztatuko da.

Akreditatutako lanbide garapenaren maila:

- I. maila: 2 puntu*
- II. maila: 4 puntu*
- III. maila: 6 puntu*
- IV. maila: 8 puntu*

Euskara.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea ezinbesteko baldintza ez denean, euskara baloratuko da dagokion kategoriako azken lekualdatze lehiaketa orokorrean ezarritakoaren arabera.

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- **Eskainitako zerbitzuak ziurtatzen dituen egiaztagiraren orijinala, SAP-Giza Baliabideak aplikazio informatikoan jasota daudenak salbu. Izan ere, horiek ofizioz konputatuko dira.**
- **Hizkuntza eskakizunaren ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua. Dagokion hizkuntza eskakizuna jadanik lortu dutenek edo Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren bitartez beste administrazio publiko batek emandako hizkuntza eskakizunaren baliokidetza eskuratu dutenek ez dute aurkeztu beharko euskararen ezagutza egiaztatzen duen dokumentazioa.**

Nela SATSE



- Prestakuntza, Irakaskuntza eta Zabalkuntzari lortutako informazioa barematzeko, Curriculum Vitae programa erabiliko da. Hain zuzen, han balidatutako erregistroak soilik konputatuko dira. Izangaiek dokumenturen bat izango balute balidatzeke, 2019ko maiatzaren 21ea baino lehen aurkeztu beharko dute Pertsonaleko Zerbitzuan, eta han balidatuko diete.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

2019ko maiatzaren 02tik maiatzaren 21eko 14:00ak arte

AURKEZTEKO LEKUA

Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko Zerbitzua.

AURKEZTEKO MODUA:

Eskaerak jarraian adierazitako ereduak betez aurkeztu beharko dira, eta norberaren lanbide-kategoria kontuan hartuta. Interesdunak, halaber, eskabidea aurkezterakoan, haren kopia bat eskatu beharko du. Kopia horrek erregistro-zigilua eduki beharko du.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 17an.

Nela
SATSE